

**Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala****17. zenbakia****Data 2004-01-28****1608 orria****7 UDAL ADMINISTRAZIOA  
ARETXABALETAKO UDALA****Telekomunikazioko osagaiak eta ekipoen funtzionamendua, kokapena eta jartzeko hirigintzako baldintzen ordenantza aldatzea. Onespena.***Iragarkia*

2004ko urtarrilaren 12an izandako Osoko bilkuran erabaki zen Aretxabaletako udalerriko telekomunikazio-osagai eta ekipoen kokapen, instalazio eta funtzionamendurako baldintza urbanistikoak arautzen dituen udal ordenantzaren aldaketa onartzea. Ordenantzan honako aldaketa jasotzen da:

*56. artikulua. Zigorrak.*

1. Ondoren azaltzen den bezala zehaztuko dira Ordenantza honetan jasotako arau-hausteei dagozkien zigorrak:

a) Egindako obra, instalazio edo jarduketaren balioaren %1etik %15era arteko isuna ezarriko zaie Ordenantza honetako 54.3 artikuluan aipatutako arau-hauste arinak egin dituztenei.

b) Ordenantza honen 54.2 artikuluan aurreikusitako balizkoetan, honako arau hauek izango dira manuzkoak:

—Instalazioak artatu eta kentzeko eginbeharrak betetzeko egin behar diren obra osagarrien %10 eta %20 bitarteko isuna ezarriko zaie –Udal Zerbitzu Teknikoek kalkulatua– Ordenantza honen 50. artikuluan aipatutako burutzapen-aginduak bete ez dituztenei.

—Instalazioaren %1 eta %5 bitarteko isuna ezarriko zaie –Udal Zerbitzu Teknikoek kalkulatua– Ordenantza honetan aurreikusitako jarduketak lizentziarik gabe gauzatzen dituztenei, betiere aipatu jarduketa horiek legeztagarriak badira.

—Instalazioaren %10 eta %20 bitarteko isuna ezarriko zaie –Udal Zerbitzu Teknikoek kalkulatua– Ordenantza honetan aurreikusitako jarduketak lizentziarik gabe gauzatzen dituztenei, baldin eta instalazioa legeztagarria ez bada.

—Ordenantza honetan araututako jarduketak, lizentzia eduki arren ezarritako baldintzen kontra eginez gero, lizentziarik gabeko jarduketatzat hartuko dira, legezkotasuna babesteko eta urratzeak zehatzeko araubidearen ondoretarako, eta aurreko ataletan azaldutako irizpideekin bat ezarriko zaie isuna, Zerbitzu Tekniko eskudunek kalkulatua.

Aretxabaleta, 2004ko urtarrilaren 15a.—Arritxu Oriden Bergara, Alkatea.

(48) (566)